

Bibliografia

(Euskal Unibertsitatea)

P. Agirrebaltzategi

Honela idatzi du K. Mitxelenak bere artikulua batetan: «Si todos reunimos la sinceridad y los arrestos necesarios para dejar fijados sobre el papel, sin cómodas escapatorias, tanto nuestras posiciones como las razones en que las fundamentamos, podemos llegar a un acuerdo mínimo: a un acuerdo sobre nuestro desacuerdo. Llegaremos a saber cuáles son nuestras diferencias y de dónde nacen éstas, y tal vez se acierte a entrever hasta qué punto las contradicciones son superables o frontales...». Euskal Unibertsitateaz ari da Mitxelena.

Aurreko JAKINen zenbakian 80tik gora orrialde luze idatzi dituzte zortzi idazlek Euskal Unibertsitateari buruz. Ni ere tartean naiz. JAKINEk berak ere bere eritzia eman du zenbaki horretan. Mitxelenaren eskabideari erantzun diote guztiek.

Baina zenbaki horretatik kanpo ere, idazle asko dira, azken urteotan batez ere, Euskal Unibertsitateari buruz beren eritzia paperean zehaztu dituztenak eta beren arrazoinak agertu dituztenak. Elkarrizketak eta eztabaidak aurrera irauin dezan eta JAKINen aurreko zenbakia osatu nahian ematen dugu hemengo bibliografia hau.

Egunkarietan idatzi dena ez dut jasotzen, baina bai azken urteotan astekarietan idatzi dena — hauetan idatzi da, *hain zuzen ere, gehienbat*, Euskal Unibertsitateari buruz urte hauetan—.

Non eta nola agertu den begiratu gabe ere, asmoari eta mamiari begiraturaz, balio desberdineko idazlanak aipatuko ditut hemen. Horregatik ere, bost sailetan emango ditut:

1. Euskal Unibertsitatearen historia.
2. Euskal Unibertsitateari buruzko norberaren eritzia.
3. Udako Euskal Unibertsitatea.
4. Euskal Unibertsitateari buruzko agiriak.
5. JAKIN zenbakia.

1. Historia

Bitan bana genezake sail hau: Euskal Unibertsitatearen historia ematen duten liburu-artikuluak, batetik; eta Unibertsitate horren inguruko gogo, asmo eta proiektuak, bestetik.

a) *Unibertsitatearen historia*

ESTORNES LASA, José de: «Euskalerriko Unibersidadeen kondaira», in: *Zeruko Argia* (1976-I-25) 13-14.

ESTORNES LASA, José de: *Los Vascos y la Universidad* (2 tomu), San Sebastián 1970. Zalantzarik gabe, Euskal Unibertsitatearen historia luzeaz —Erdi Aroan hasten denaz— idatzi den historiari osoena da. Dokumentu asko ere badakar.

GARATE, Justo: «Introducción al estudio de las Universidades Vascas», in: *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos* (44, 48, 50 zenb.).

IBARRA, J.: *Historia del Monasterio y de la Universidad Literaria de Irache*, Pamplona 1939.

JIMENO JURIO, J. M.: «Universidad: Objetivo torpedeado desde el siglo XIII», in: *Punto y Hora de Euskal Herria* (1-5 dic. 1976), 24-28. Motxa, baina mamitsua da artikulua. Nafarroatik ikusten du batez ere Euskal Unibertsitatearen historia, begi kritikoz ikusi ere. Artikulu barnean jarri du lauki ikusgarri bat, «Cronología de una enseñanza cultural» izenekoa: Urtez urte jasotzen ditu Unibertsitatearen historiaren datuak.

LIZARRALDE, A.: *La Universidad de Sancti Spiritus de Oñate*, Tolosa. Lau mendetatik gora iraun zuen Oñatiko Unibertsitatearen historia osoa eta xehea.

MENDIOLA, R.: *Los Estudios en el Real Seminario de Vargara*, Vergara 1961.

SALVADOR Y CONDE, J.: *La Universidad de Pamplona en el siglo XVII* (Navarra. Temas de cultura popular 279), 1977. Izatez, eta tituluaren kontra beharbada, hemezortzigarren eta hemeretzigarren mendeetaraino iristen da Nafarroako Unibertsitate asmo eta esperentzien laburpen hau.

SAENZ DE SANTA MARIA, P. C., *Historia de la Universidad Comercial de Deusto*, Deusto 1962.

UGALDE, Martín de: *Síntesis de la Historia del País Vasco*, Seminarios y Ediciones, Madrid 1974. Euskal Herriaren historia labor honetan, garrantzi handia eman dio autoreak hezkuntzaren eta bereziki Unibertsitatearen historiari (ik. 108, 138-141, 186-193 or.). Estornés Lasaren historiak baliatzen da batez ere.

b) *Gogoak, asmoak, proiektuak*

Hiru unetan biltzen dira, bereziki, hemen aipatuko ditugunak: Na-

farroatik zetorren *Universidad Vasca*, Euzko Ikaskuntzagandik sorturiko asmo eta proiektuak, bigarren Errepublikaren garaian erabilitakoak. Ordena honetara emango ditut.

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA, *Proyecto de una Universidad Vasco-Navarra*, Pamplona 1866.

EUZKO IKASKUNTZA, *Primer Congreso de Estudios Vascos* (Oñate 1918), Bilbao 1919. Irakaskuntzari buruzko Sail batek ere lanegin zuen Batzarrean, eta honen azken konklusioa Unibertsitateari buruzkoa da. 847 or.

EUZKO IKASKUNTZA, *Segundo Congreso de Estudios Vascos* (Pamplona 1920), Editorial y Prensa, San Sebastián 1920, 37-232 or. Batzarre honetan, Sail berezi batek Euskal Unibertsitatearen arazoa aztertu zuen alderdi askotatik.

EUZKO IKASKUNTZA, *Tercer Congreso de Estudios Vascos*. (Guernica 1922), San Sebastián 1923, 149-158 or.

EUZKO IKASKUNTZA, *Memoria y Bases para la Resolución del Problema Universitario*, San Sebastián 1923. Guzti hau Madrilgo Gobernura aurkeztu zen. Euskal Herriak ezezkoa hartu zuen Gobernuagandik.

AGRUPACION DE CULTURA VASCA, *Pro-Universidad Vasca*, Madrid 1932. Euskal Unibertsitatearen asmoa aurrera bultzatu nahian, zenbait lagunen eritziak jasotzen dituzte (Unamuno ere tartean zen, bere eritzia emanez).

N. N.: *Historia de los Estatutos Vascos de Autonomía* (Comisión de Cultura Vasca de la Interprofesional de Estudios y Publicaciones, S.A. (J.M.C. — I.E.Z.), Zarauz 1976. Liburuxka honetan ez da bereziki Euskal Unibertsitateaz mintzatzen; baina jakingarria da, Autonomi Estatutu desberdinetan nola ipini den Euskal Unibertsitatearen arazoa. Horregatik, ikusgarria da liburu hau ere.

KIMU BERRI, «Euskal Autonomi Estatutu Berrirako Aurreproiektua», in: *Anaitasuna* (1977-III-1) 20-41. Aurreko Estatutuetan bezala, jakingarria da nola hitzegiten den Euskal Unibertsitateari buruz Estatutu Berriaren proiektu honetan, nahiz eta zuzen-zuzenki eta zabalki horretaz mintzatu ez.

Hemen aipatu ditugunez gainera, beste bibliografiarik ikustekotan, ik. ESTORNES LASA, José, *Los Vascos y la Universidad* (II tomu): lehen orrialdeetan aipatzen du hainbat liburu eta artikulua.

2. Norberaren Eritziak

Lehengo urtean eta aurtengoan asko idatzi da hemengo aldizkarietan, Euskal Unibertsitateari buruz; eritzi desberdinak agertu dira. Hauk aipatuko ditut sail honetan.

AGIRREBALTZATEGI, P.: «Euskal Unibertsitate etengabea», in: *Anaitasuna* (1974-IX-30) 1+20.

- AMAITERMIN, D.: «Gipuzkoako Unibertsitatea euskal Unibertsitatearen kontra», in: *Zeruko Argia* (1976-X-10). Ez da gaur-gaurko arazoa artikulu honek ukitzen duena, baina gaurkoa ere bada. Euskal Unibertsitateaz bero-bero gabiltzan honetan, oraindik orain berriz ere Gipuzkoako Unibertsitatea sortu nahian dabilta batzu. Zer nahi da: Euskal Unibertsitateari beste oztopo bat ezarri?
- BERRIKARI: «Euskal Ikasgu nagusia», in: *Goiz Argi* (1976-VII-10) 10. Jose Lasak argitarara berria duen liburu baten inguruan ari da artikulua.
- «*Distrito baturantz, Gipuzkoakeriak oztopo*», in: *Zeruko Argia* (1976-II-20) 29. Berriz ere lehen aipaturiko arazoa: Euskal Unibertsitatea ala Probintzia bakoitzekoa? Kontrakoak ote? Arazo honekin aski lotua dago beste hau, azken aldian nahiko eztabaidatua: Non kokatuko da Euskal Unibertsitatea? Ala barreiatua izango da Euskal Herri osoan?
- «Egoera nahasia», in: *Zeruko Argia* (1976-I-25) 20.
- EZTEBE: «Mitxelena eta Gipuzkoako Unibertsitatea», in: *Zeruko Argia* (1976-urtarrila-4) 21.
- HARANBURU-ALTUNA, L.: «Universidad nacional vasca», in *Berriak* 1 (1976-iraila-16) 46-47.
- LASA, Jose: *Euskal-Ikasgu nagusia edo Unibertsitateaz*, Zarauz 1976. Liburu honetan, euskal kulturari eta herriari buruzko bere eritzi batzu ezezik, zenbait euskal kultur gizonak euskal Unibertsitateari buruz dituzten eritziak bildu ditu autoreak: J. M. Barandiaran, C. Baroja, P. Lafitte, A. Tovar, K. Mitxelena, Jon Bilbao, J. Goenaga. Alde honetatik, erakarmen handia du liburuak, kontutan edukiaz bereziki, erantzule guztiek galdeketa berberari erantzuten diotela.
- LASA, Jose: *Universidad Vasca*, Zarauz 1976. Funtsean aurreko liburu berbera da, itzulpena utsa ala alderantzizkoa ez bada ere. Batez ere Unibertsitateari dagokionez, hemen ere kultur gizon haien erantzunak jasotzen dira erdaraz.
- LASA, Jose: «Una utopía irrealizable: La Universidad Vasca», in: *Garaia* (24 febrero-3 marzo 1977) 14-15. Tituluak adierazten duenaren kontra, autoreak egingarri ikusten du Euskal Unibertsitatea, gaurko Euskal Herriaren dinamikan. Honen inguruan, zenbait punturi buruz bere eritzia zuzenki eta ozenki ematen du. Dirudenez, ez du gogotan eduki JAKINen zerbakia, gai horri buruzkoa.
- MITXELENA, K.: «Unibertsitatea Euskal Herrian», in: *Punto y Hora de Euskal Herria* (1-15 sep. 1976). 30-31. Ustartitzen ospaturiko azken Udako Euskal Unibertsitatean emandako hitzaldia biltzen da artikulu honetan. Mitxelena da Euskal Unibertsitateari buruz gehienbat pentsatu eta esan dutenetakoa.
- MITXELENA, K.: «Otra vez la Universidad», in: *Punto y Hora de Euskal Herria* (1-5 oct. 1976). 30-31. Ustartitzen emandako hitzal-

diak ez zuen ase eta lasai utzi zenbait entzule, gero artikuluren batetan azaldu zenez ere. Horregatik bere pentsakera argitzera eta besterenak astintzera dator Mitxelena oraingo honetan.

- OLAZABAL, K.: «U.N.E.D. Distantzi Unibertsitatea zer den», in: *Zeruko Argia* (1976-VII-25) 10-11. Bergarako Distantzi Unibertsitatea irekitzeko zegoelarik, horren berri ematen du bereziki. Autorearen ustez, «Universidad a Distancia delakoa, irakaskintza mailan Espainian egin den gauzarik serio eta estrukturatuenetakoa dugu».
- ORELLA, J. L.: «Euskal Herrirako Unibertsitate baten beharrez», in: *Zeruko Argia* (1976-I-25) 15-16. Euskal Unibertsitatea lortzeko eman beharreko zenbait urrats nabarmentzen du autoreak: Unibertsitate barrutia, Bazorde eragilea, Kultur mintegiak...
- SANTAMARIA, K.: «Euskal Unibertsitatea eta Euskal Herriko Unibertsitate», in: *Zeruko Argia* (1976-X-17) 12. Bi Unibertsitate mota desberdin dira, idazlearen ustez; baina ez bata bestearen aurka jartzekoak. Helburua, berriz, lehenengoa da: Euskal Unibertsitatea.
- SANTAMARIA, C.: «Sobre la Universidad vasca», in: *El País* (24-marzo-1977) 9. Madrildar egunkariaren «Tribuna libre» sailean, C. Santamariak, beste lekutan argitaraturiko artikuluetatik eta emaniko asmoetatik atzera (?) jotzen du, «gazteen ametsak» eta «eskabide mamitsuagoak» gerorako utziz, eta K. Mitxelenarekin bat eginez, berehalako helburua, *Euskal Unibertsital Barrutia*, eskatzen bait du bakarrik. Oraingoz!
- TXIKIOT: «Euskal Unibertsidadea bear dugu», in: *Goiz Argi* (1976-V-1) 10. Artikuluak, bere motzean, Euskal Unibertsitate bertiak bete behar dituen baldintzak aipatzen ditu, sakondu gabe.
- «Unibertsitatea eta gizartea. Euskal Unibertsitatea dela eta», in: *Zeruko Argia* (1976-I-25) 17-19. Gaurko Unibertsitatearen arazorik larrietakoa, gizartetik kanpo ihardutea da beharbada; Unibertsitatea klase baten zerbitzurako dagoelako ez ote? Hau da bereziki astintzen duen arazoa.
- «Universidad Vasca», in: *Punto y Hora de Euskal Herria* (1-15 sept. 1976) 22-24. Arabako zenbait gizon aipaturen arteko elkarrizketa bat jasotzen da hemen. Administrazioaren aldetik, ekonomiaren aldetik, hizkuntzaren aldetik ukitzen da gaia.
- ZALBIDE, M.: «Euskal Unibertsitatea. Ikuspegi bat», in: *Zeruko Argia* (1977-I-9, 28-29 or. eta 1977-I-30, 28 or.). Hiru zatitan darama idazleak bere gogoeta: Historia apur bat, oraingo egoera, biharko irtenbideak. Kulturaren eta hizkuntzaren aldetik ematen du bere ikuspegia, Unibertsitateak dituen beste alderdiak (politikoa, soziala, ekonomikoa) alde batetara utziz. Hirugarren partean konkretua izatearen balioa du batez ere.
- MINISTERIO DE EDUCACION Y CIENCIA, *Guía del Universitario*, Madrid 1976. Hego Euskal Herrian unibertsital egoera zein den ezagutzeko (datuak, etab.) egokia da liburua. Datu horien esanahia eta ondorioak atera egin behar, ordea.

Aipamen berezia merezi duelako, sail honen azkenerako utzi dut *Oarso* 1975, Errenterriak ateratzen duen urteroko aldizkaria, aipatzea. Zenbakiaren parterrik handiena «Gipuzkoako Unibertsitateari» eskaini zitzaion; hala ere, zenbait autorek, arazoa horrela ipintzearekin ados ez dagoelako, Euskal Unibertsitateaz egiten ditu bere gogoetak, eta bere eritziak ematen. Idazleen artean batzu oso ezagunak dira; beste ez hain ezagun. Denen izenak aipatuko ditut hemen, denen eritziak izan bait daitezke jakingarriak: Bittor, *Ikastolatik ikastetxe nagusi edo Unibersidadera*; Santiago Aizarna, *Un concepto de Universidad*; Xabier Lete, *Gipuzkoako Unibertsitateaz*; José María Busca Isusi, *Pro Universitatis barduliensis* (sic); Javier Albistur y Antonio Pérez de Calleja, *Notas previas para un estudio de una Universidad vasca*; Manuel Agud Querol, *La Universidad de Guipúzcoa ¿es aun posible?*; Anselmo Arrieta, *El Real Seminario de Vergara y la Universidad de Guipúzcoa*; L. Michelena, *Desde Salamanca...*; Mikel Ugalde, *Ikastola eta Unibertsitatea*; Aguirre de Echeveste, *Los que no fuimos a la Universidad*; Miguel Pelay Orozco, *Reflexiones en torno a un grave problema*; J. Ignacio Tellechea Idígoras, *Universidad vasco-navarra. Un proyecto frustrado de 1866*; J. Rodríguez del Castillo Agesta, *¡¡¡Universidad!!!*; Shanti de Oarso, *El reto*.

3. Udako Euskal Unibertsitatea

Bostgarren Udako Euskal Unibertsitatea prestatzen ari dira. Historia laburra du. Eta oraindik ez da egin horren historia. Ez eta horren eboluzio osoa adierazi ere. Hala ere, euskal komunikabide sozialek aski gogotan hartu izan dute, eta informazioan leku handitxoa eman diote, batez ere azken bi urteotan. Informazio artikuluen berri emango dut hemen, baina Aldizkariak eta zenbakiak bakarrik aipatuz:

- Anaitasuna* (1974 abuztua-31) 1-2.
- Anaitasuna* (1975-iraila-15) 6-7.
- Anaitasuna* (1976-iraila), passim.
- Zeruko Argia* (1976-VI-13), passim.
- Zeruko Argia* (1976-iraila-5), passim.
- Berriak* 1 (1976-iraila-16) 43-45.
- Zeruko Argia* (1976-azaroa-7) 27.
- Zeruko Argia* (1977-urtarrila-30) 29.

Baina jakingarriak dira U.E.U.ri buruz egin diren azterketak eta kritikak ere. *Zabal* Aldizkarian argitaraturiko artikulua sailtxo bat nabarmenduko dugu:

BIDART, G. «Udako Euskal Unibertsitatea», in: *Zabal* 4 (1973), 7-9.

IDIART, P. «Euskal Unibertsitatea», in: *Zabal* 4 (1973) 10-11.

JAUREGI, «Katalanen eta Euskaldunen Udako Unibertsitatea», in: *Zabal* 4 (1973) 12-15. (Udako katalan Unibertsitatearen argitan, euskaldunaren azterketa eta kritika egiten da).

L. J. M., «Ustaritzeko agerpena dela eta...», in: *Zabal* 17 (1976) 1-4. (U.E.U.ren lehen agiriaren azterketa).

ZABAL, «Unibertsitateaz ZABALen oharrak», in: *Zabal* 4 (1973) 5-6.

4. Agiriak

Agiriak deitzen ditugu Aldizkariak beren editoriale bezala eman dituztenak eta beste talderen batek herriari eskaini dion edozein. Hegoaldeko orain arteko euskarazko hiru astekari ezagunenek eskaini diote editorialeren bat Euskal Unibertsitateari.

1. «Badugu Euskal Unibertsitatea», in: *Anaitasuna* (1976-9-15) 5.
2. «Unibertsitatea. Bagenuen, behar dugu, zor zaigu», in: *Zeruko Argia* (1976-urtarrila-26) 3.
3. «Euskal Unibersidadea», in: *Goiz Argi* (1976-urtarrila-10) 1.

Udako Euskal Unibertsitateak bi agiri eman ditu Unibertsitateari buruz:

1. «Udako Euskal Unibertsitatearen Agiria», in: *Anaitasuna* (1975-IX-15) 8-9.
2. «Udako IV. Euskal Unibertsitatearen manifestua», in: *Anaitasuna* (1976-iraila-15) 11.

Azkenik, beste agiri bat atera dute E.U.T.G.ko Filosofia eta Letretako Fakultateko Irakasleek:

«Euskal Unibertsitateaz», in: *Zeruko Argia* (1976-otsaila-20) 28.

Beste talde politiko edo kulturalen baten agiriren bat izango da agian hortik, azken urteotan Euskal Unibertsitateari buruz emanik. Ez dut hemen jaso.

5. JAKIN: Euskal Unibertsitatea

Bigarren aldiaren haserako zenbakiaren gai nagusi bezala, Euskal Unibertsitatearena erabili zuen JAKINEk. Alde askotatik heldu dio arazoari. Eta hau argitzeko eta aztertzeko eta idazle desberdinen eritziak biltzeko, egin den ahaleginik nagusiena dela esan daiteke zalantzarik gabe.

Hona hemen zenbakiaren aurkibidea (ik. JAKIN 1977, 1):

JAKIN: *Euskal Unibertsitatearen Izarra*. Editoriale gisa, JAKINEk bere eritzia ematen du Euskal Unibertsitateari buruz.

ARTAMENDI, J. A.: *Unibertsitatea dela eta*. Unibertsitateak bere buruz duen ikuspegia. Unibertsitatearen errealitatea. Gaurko krisia nola gainditu.

LIZUNDIA, J. L.: *Euskal Unibertsitatearen aurrehistoriaz*. Oñatiko Unibertsitatea. 1866ko EHko Unibertsitatearen asmoa. Eusko Ikaskuntzaren asmoa. Errepublika garaian. 1937an Unibertsitatea eraiki.

LARRAZABAL, J. M.: *UEUtik Euskal Unibertsitateerako bidean*. UEUren bilakamenduaz. UEU eta euskal politikagintza, erlazio pedagogikoak, ikerketa. Bide berriak.

- TORREALDAY, J. M.: *Kultur minorien (udako) Unibertsitatea*. Minoriak Europan; uste baino gehiago. Udako saioak. Unibertsitate berriaren oinarriak.
- IDAZKARITZA: *Euskal Herriaren unibertsital egoeru*. Lau unibertsital barruti. Hiru Unibertsitate, zenbait fakultate, eta beste. Hainbat hutsune eta gehiegikeria batzu. Euskal kultur gaiak, bazter gaiak.
- MITXELENA, K.: *Unibertsitatea eta Irakaskuntza gure artean*. Oñatiko Unibertsitatea eta Bergarako Mintegia. Estatua eta irakaskuntza pribatua. EHko Unibertsitatea eta Euskal Unibertsitatea.
- SANTAMARIA, K.: *Unibertsitateko kultura dela eta*. Kultura unibertsala eta partikularra. Unibertsitatea eta euskara.
- AGIRREBALTZATEGI, P.: *Biharko Euskal Unibertsitatea*. Euskal Unibertsitatearen bila. Biharko Euskal Unibertsitatearen aukera. Irakaskuntza, euskara, euskal kultura, euskal gizartea, EHa eta Unibertsitatea.

Euskal Unibertsitateaz idatzi dena ez da guti. Baina oraindik badago lekurik bere eritzia eman nahi duenarentzat. Hala ere, ez genuke luzeegitu behar, gaur eta biharko behar dugun Euskal Unibertsitatea egiten hasi gabe. Laster —berehala— hasi behar dugu Euskal Unibertsitatea egiten.

* * *

Idazki bilduma hau irarkolan zegoelarik, beste liburu hau kaleratu da: ORELLA, J. L.: *La Universidad Vasca*, Ed. Itxaropena, Zarauz 1977, 243 or.

Benetan aipamen berezi-berezia merezi du, berria delako, gaia saketik hartzen duelako eta irtenbide konkretuetara jotzen duelako, bide zchatzak markatuz gainera.

1866tik hasirik gaur arteko Euskal Unibertsitatearen historia —Euskal Herriko Unibertsitatea deitzea hobe litzateke— zortzi kapitulutan banatzen du; Unibertsitate hori lortzeko eta gauzatzeko ekinaldien epe bana aztertzen dute kapituluok.

Euskal Unibertsitatearen arazoa eta gorabehera historikoak oso loturik daude uneko politikari eta administrazio moduari. Ingurune honen barnean argitzen du autoreak Euskal Unibertsitatearen azken mendeko historia.

Kapitulu luze bat eskaintzen dio azken urte t'erdiko epeari. «La Universidad Vasca en la reinstauración monárquica de la familia de los Borbones con Juan Carlos I en 1975» du titulua (70 orrialde). 1975eko azaroak 7an Madrilgo Gobernuak dekretu bat eman zuen, Gipuzkoan eta Bizkaian erregimen berezi bat eraikitzeko. Horretarako proiektuen inguruan, Unibertsitatearen arazoa ere berriz astintzen da, baina probintzia bakoitzaren barrutian, proiektuak berak bezala, eta ez Euskal Herri osoaren barrutian.

Berriki Gipuzkoan eta Bizkaian «Juntas Generales» direlakoak sortu dira. Baina guri dagokigun arazoa lehenetan gelditzen da. Euskal Uni-

bertsitatearen arazoa ez da bide horretatik etorriko; bestelako inguru politikoa eta administrazioa eskatzen ditu. Honetatik doaz Herritik bertatik sortu eta bultzatzen diren Euskal Unibertsitatearen asmoak. Gaurko Euskal Herriaren dinamikatik oso atzera gelditu dira Madrildik etorri diren konponketatxoak, bai eta Madrilen orbitan ipintzen diren «euskal Unibertsitatearentzako» irtenbideak.

Azken kapitulu bat «Reflexiones histórico-filosóficas sobre la Universidad Vasca» da. Euskal Unibertsitatea nola ulertu behar den gaurko sozio-ekonomiko eta kultur egoera eta dinamikan, eman beharreko urratsak eta Euskal Herriaren dinamika politiko, sozial, kultural eta ekonomikoak euskal Unibertsitatea lortzeko eta gauzatzeko ematen dituen itzaropenak. Autorea baikorra da...

Lehen urrats bezala Unibertsital barrutia jartzen du. Baina *Euskal Unibertsitatearen* barrutiarekin batera *Euskal Herriko Unibertsitate espainolaren* barrutia jartzen du autoreak.

Ez dut argi ikusten, luzarorako, oso luzarorako ala betirako soluzioztat jotzen duen «bikote» hori, ala oraingozkotzat bakarrik. Hau oso argi utzi beharra dagoela uste dut, garrantzi handikoa bait litzateke Euskal Herriaren kultura eta Unibertsitatearen etorkizunerako. Bereziki argitu beharra dago, oraingo erdal Fakultateen eta Unibertsitateen eta geroko erdal edo espainol barrutiaren aurrerabidea eta dinamika nondik norakoak izango diren jakiteko.

Ni neu beldur naiz, horrelako soluzioa oso luzatuko edo betirakotuko balitz, ala erdal Unibertsitateak euskalduna itoko lukeela, ala Euskal Herria bitan («hirutan») banatuko litzatekeela kulturaren aldetik, euskal kultura eta Unibertsitatea «ghetto» bilakatuz edo. Horrelako beldurrik agertua da Mitxelena ere.

Nire ustez, Euskal Unibertsitateak euskal gizartearen eta kulturaren biltzaile izan behar duen bezala, Euskal Herriaren integratzaile eta bateratzaile izan behar du. Euskal Unibertsitateak Euskal Herri osoa irabazi behar du.

Azkenik, Euzko Ikaskuntzak 1923an emaniko «Memoria y bases para la resolución del problema universitario en el País Vasco» delakoa ekaritzen du, liburuaren eranskin bezala.

P. A.